

TOKIKOM

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2015eko martxoa • 301. alea



KORRIKA
euskahalduntzearen bidean

Zuri

esker

“Gizarte
Zerbitzuei esker,
nire lagun
Naiarak kalte
egiten zion
harremana
gainditu du eta
libre bizi da orain.”

Ainhoa, 17 urte



Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu
Zure eskubidea da

#ZureEskubidea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

www.gipuzkoa.eus

Udaberria

Urtearen hasiera ofizialki urtarrilaren 1ean baldin bada ere, baditugu beste egun seinlatu batzuk urteari hasiera ematen diotenak, eta, zentzu askotan, gudan egitegiaren hasierak baino eragin handiagoa dutenak. Txikitxo eta nagusiendako, dudarik barik, desiratuena oporren hasiera da, eta gorrotagariena, zalantzarik gabe, eskolara bueltatzekoa.

Udaberria da urteko beste momentu importante horietako bat. Udaberri betiereko baten bizi dira txikitxoak, horixe da euren egoera naturala, ze zorte! Baina nagusiendako oso garai gozagarria da, eta besoak zabal-zabal eginda hartzen dugu. Esperantza handia pizten digu, handiegia, eta badakigu hala dela, baina ez dugu ilusiorik galtzen horregatik. Desio dugu odola borborka jarri, eta emozio berriak ekarri diezazkigula opari, energia positiboz bete gaitezten.

Zeru urdinak eta eguzki-izpiak agertu daitezela berarekin batera, neguan pilatutako nagikerien nekea arindu diezaguten magia bezala. Are gehiago, gure burukominen konpontzaile izan dadin ere nahi izaten dugu.

Kontua da udaberria etorri eta konturatzen garela denak berdin jarraitzen duela, berdin-berdin, aurreko egu-



Elena Perez

“Irakurketarekin, batek arintasun handiagoz bezala ematen du pausoa eta pittin bat zorionsuago bizi da”

nean laga genuen bezala, eta ohartzen gara hobe dugula espabilitzea eta gure kabuz pasatu katigatuta gauden orria, dena delakoa izanda ere; zergaitik eze, ez badugu egiten eginbeharrak pilatuko zaizkigu eta ez da izango modurik gure helburura bidean aurrera egiteko.

Zorionez, baditugu beste baliabide batzuk udaberriarengandik espero ditugun horiek guztiak errazago egiten laguntzen digutenak, esaterako, irakurketa. Zabalitzen duzu edozein liburu eta, zasl, hori bai dela magia! Zu zeu izateari laga eta super heroi bihurtzen zara, edo musikari, edo detektibe, edo maiordomo, edo momentuan suertatzen den beste edozein pertsonaia.

Irakurketak bor-borka jartzen digu odola eta biziaren argi-izpi moduko bat bihurtzen da, baina gainera, zure irudimena elikatzen du, eta irudimen aktiboarekin batek arintasun handiagoz bezala ematen du pausoa eta pittin bat zorionsuago bizi da. Eta, azken batean, helburua horixe da.

Ongi etorria izan dadila udaberria orain eta ongi etorria irakurketa, beti!



Euskalzaletasunaren alde:



SORALUCE

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Leire Iturbe eta Egoitz Unamuno **Zuzentzailea:** Leire Ginea **Publizitatea:** Egoitz Unamuno **Diseinua:** Iñigo Urribetxabarria **Maketazioa:** Oier Larreategi
Azala: Ferman Oregi **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA



Gutunak

Iñaki Amezua,
famiariaren izenean

Zuen esku dago

Udaletxearen aurka babes gabe gauden Soraluzeko familia bat gara.

Gure egonezina 2014ko maiatzean hasi zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aurrerapen baten berri izan genuenean. Plan horretan gure eraikina desjabetu eta behera botatzea aurrekusten zen, hiri-antolakuntzaren lege guztiak betetzen ez zizuten eraikinekin batera, nahiz eta gure eraikinak hiri-antolakuntzaren legea bete. Horretarako, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2006ko legearen 91.8. artikuluan oinarritu dira, haren arabera "(...) Foru-Aldundiek plan orokorrak behin betiko onesteko eskumena eskuordetzan utz liezaieke, 7.000 biztanle edo gutxiago duten udalerrietako udalei (...)".

2015eko martxoaren 12an izan genuen azken bilera, bota nahi dituzten Santa Anako beste etxebizitzetako jabeekin batera, plana aurrera eramateko zuten asmoa argi geratu zen.

Gu ez gaude hobekuntza planaren kontra, baina beste aukera batzuk daudela uste dugu. 2014ko martxoan argitaratutako hiri-antolamenduko plan horretan jada, beste alternatiba batzuk agertzen ziren, orain desagertu egin direnak inolako justifikaziorik gabe.

Alde denak aseko lituzkeen aukeraren bat bilatu behar dela uste dugu, eta, horregatik, eskatu nahiko genieke zinegotziei beste aukerak kontuan hartu eta azter ditzatela.

Azkenik, argi utzi nahi genuke beste jabeak (etxebizitza, lokal edo garaje) babesten ditugula eta berriro ere eskatzen diegula Soraluzeko Udaleko zinegotziei aukera bat inposatu beharrean, denon artean irtenbide bat bilatzea.

Gutunaren bertsio osoa Plaentxia.eus-en.

Fracking Ez
mugimenduaren
izenan

Jakin dezagun

BNK, enpresa canadiarra eta SHESA, Eusko Jaurlaritzak kudeatu eta diru publikoz ornitzen duen enpresa, hasi dira Burgoseko lurretan haustura hidraulikoa, fracking-a, egiteko erasoaldia.

BNKk aurkeztu duen proiektu batean, Urraca izeneko eremuan, 6 putzu egiteko asmoa du. Ereku horrek Medina de Pomar eta Villarcayo herriak eta Cuesta-Urria merindadea hartzen ditu bere baitan.

Udal guzti horiek, denak PPkoak, Fracking-a baztertzen duten mozioak onartu dituzte. Sedano eremuan, udal-proiektuak dira eta Sedano bailarako auzo-batzordeak eta Rio Ubiernako merindadeak uko egin diote euren lurraldeak alokatzeari.

Hori dela-eta, BNKk proiektu hori herri-onura izenda dezan eskatu dio Gaztela eta Leongo Juntari, horrela, aske izango da behin-behineko okupazioa egin ahal izateko eta ikerketa lanak egiteko.

SHESA Espinosa de los Monterosetik 3 km-tara dagoen Angosto izeneko eremuan, ikerketarako zundaketak martxan jartzeko asmoa du.

Fracking-aren kontrako anasbladek alegazioak aurkeztu dituzte, otsailaren 19an, Santanderren, Bizkaian eta Burgosen Madrilgo gobernuak dituen delegaritzetan. Bertan, Angosto 1 eremuan ikerketako zundaketen egitasmoa bertan behera uztea eskatzen dute, egiteak ekar ditzakeen ondorio larriak kontuan izanda.

Era berean Kantauriko euskal arroan ur emari oso garrantzitsuak batzen dira eta bertatik biztanle askok edaten dute.

Ikerketako faseak ez dira egiten bulegoetan edo laborategietan, baizik eta haustura hidraulikoaren prozesua bere osotasunean garatuz, beraz, ustia ketako arrisku berberak dituzte.

Bittartetik



Josu
Elorza

Balora dezagun

Askotan kanpora bidaiatu eta bertakoak ezagutu arte ez dugu behar beste baloratzen etxean bertan daukaguna. Etxean daukagun gauzak baloratze horrek, ondorio askotara eraman gaitzake. Baina gaurkoan euskararen eta bere garrantziaren inguruan berba egiteko aukera egin dut.

Duela lau urte egin nuen lehenengoz Latinoamerikara bisita, Perura hain zuzen. Geroztik gogoia neukan berriro ere Latinoamerikan murgiltzeko eta orain dela hilabete batzuk, Guatemalan bi hilabetez bizitzeko aukera izan nuen. Bi herrialde ezberdin dira, baina uste baino antzekotasun handiagoak dituztenak. Biek ala biek hizkuntza zapalkuntza izugarria jasan izan dute. Orain, Quechuak eta Kachikelak, Euskarak eta euskaldunok bere garaian hartu genuen bidea jarraitu nahian dabilta.

Beraiek gudan duten mirespena ikusteak, gurea gehiago baloratzeke eta Euskararen bidean lan gehiago egiteko gogoia ekarri dit niri. Ezin ahaztu, azken egunetan Euskal Herria zeharkatzen diharduen Korrika ere, 19.a, eta ez dadila azkena izan. Gogora dezagun, txikitasunean haundi eta munduko hizkuntza gutxitu askoren ispilu garelara. Balora dezagun daukaguna, batzuentzat altxor txikia dirudiena guretzat munduko altxorrik preziatuena baita.

Abizena euskaldu nahi?
Oso erraza da.

Erregistro zibilera edo bake epaitegira joan eta esan
abizena euskal grafiaz ipini nahi duzula.

“Benetako poza ematen digu jubilatuta elkarre euskalduna garela sentitzeak”

Rosa Oruesagasti (1954, Soraluze)
Itxaropena jubilatuen elkarteko lehendakaria



Rosa Oruesagasti, Itxaropenako lehendakari berria.

33 urteko ibilbidearen ostean, emakume batek gidatuko du lehenengoz Itxaropena elkarteko batzordea. Bazkideek hala bozkatuta, Rosa Oruesagasti izango da datozen hilabeteetan elkarteko lehendakaria. Bi seme-alaben ama da eta bilobak zaintzea du orain egiteko nagusi. Denbora librean mendian ibiltzea, irakurtzea eta esku-lan egitea gustatzen zaio.

“Jubilatuetakoko ekintzetan emakumeek gizonek baino gehiago parte hartzen dute”

Lehendakaritzara heldu den lehen emakumea zara. Ilusio berezirik eragiten dizu?

Etorri eta berehala lehendakari naizela sentitzea bada nahiko erronka niretzat. Egia da Itxaropenako ibilbide guztian zehar gizonezkoak izan direla elkartearen lehendakaritzako ardura hartu dutenak, baina batzordean emakume eta gizonen arteko ordezkari kopurua pareko dago. Oraingoan ni izendatu naute lehendakari, baina nik uste jubilatueta emakumeek paper garrantzitsua betetzen dutela betidanik. Gehiago esango dizut, ausartuko nintzateke esatera jubilatuetakoko ekintzetan emakumeek gizonek baino gehiago parte hartzen dutela.

Badira urte batzuk lehendakari euskalduna izendatzen duzuela. Zein egoera bizi du euskarak jubilatuetan?

Orain dela hiru urte inguru komunikazio guztia gazteleraz lantzen zen; dela momentuko batzordeko kideek euskaraz ez zekitelako edo erosoagoa iruditzen zitzaielako. Azken urteetan, aldiz, lan izugarria egin da elkarre euskalduntzen, eta esfortzu horri esker jakinarazpen guztiak euskaraz eta gazteleraz argitaratzen ditugu. Erabiltzaile gazteenek euskara arazo gabe ulertzen dute eta gustatuko litzaiguke 20 urte barru elkartean, euskara barru erabiltzea. Hori datozenen esku dago. Gure partetik esan nahi dugu astelehenean harro-harro eraman genuela lekukoa Korrikan eta poz handia eman digula jubilatuen elkarre euskalduna garela sentitzeak.

“Gustatuko litzaiguke 20 urte barru, elkartean, euskara barru erabiltzea”

Zein izango da orain zure egiteko nagusia?

Hilabete da ardura hartu nuela eta momentuz, ikastea eta entzutea tokatzen zait. Lehenagotik eginda dagoen lanari jarraipena ematea gustatuko litzaidake, ondo egindakoei heldu eta gaizki egingakoak zuzentzen ahalegindu. Badakit zuzendaritzan hartuko ditugun erabakiak ez direla denon gustukoak izango, baina erabakiak juntan hartzen dira eta ni beste bat gehiago izango naiz. Infor-

matika ikasten eta teknologia berriak marniatzen ere badut nahiko lan.

“Berrordainketaren arazoarekin badugu nahiko lan”

Zeintzuk osatzen duzue zuzendaritza berria?

Nirekin batera Juanito Unamuno (lehendakariordea), Montse Alvarez (idazkaria), Luis Mari Kortabarria (diruzaina), Luis Felipe Galarraga, Pilar Gomez, Txaro Lete, Eradio Cadenas eta Patxi Ihabar arituko dira. Lan-talde polita osatzen dugu.

Aurten, zein hobekuntza egingo dizkiozue elkarteari?

Tabernako sukaldeko altzariak aldatzeko plana garatzen dihardugu, petanka jokoak martxan jarri nahi dugu eta ile-apaindegi zerbitzuan berogailu independente bat jartzea gustatuko litzaiguke. Honez gain, urteroko irteerak, txapelketak eta bestelako jokoak mantenduko ditugu; lehen txangoa apirilaren 16an izango da, Iratxera.

Herriko jubilatuek orokorrean...

Nik esango nuke bizi-kalitate ona dutela baina beti dago zertan hobetu. Esaterako berrordainketaren arazoarekin badugu nahiko lan.

Elizpe
Hartz klinika

Gure zerbitzuak:
- Ortodontzia ikusizina
- Implantak

DOKIMAKO BERRIKIDETAK
FINANZAKETA ZURE NEKAZIA
KONFIGURAZIOK SAREKO SURREKUNTZIA

MUTUALIA, PADI (haumen arretarako hartz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elaburu 3 beheko, Soraluze

AURREZTU ENERGIA

Berotu ura eguzki izpiekin edo airearekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

Ume gaiztoen festa Kukumixorekin



Kosta ala kosta udalekuen aurkezpena.

Kukumixok umeendako asteburu pasa antolatu du maiatzaren 9 eta 10erako. Ume gaiztoen festa Lasturko aterpetxean egingo da 1.mailatik-6.mailara arteko umeendako. Izena apirilaren 15etik 22ra

bitartean eman daiteke Pil-Pilean Elkar-tean. 50 Umerendako lekua dago eta hortik aurrerakoak zozketaz aukeratuko dira. Prezioak: 32€ (arrunta), 30€ (familia bereko bat baino gehiago edo Pil Pileaneko bazkide izanda), 20€ (gizarte zerbitzuetako programen erabiltzaileek).

Udalekuak prestatzen

Udarako aisialdi eskaintza antolatzen ere badihardur Kukumixok: udaleku irekiak HH 2.mailatik hasita 6.mailara artekoendako, 1. eta 2. DBH-ko gazteendako udalekuak Belabaratzeko aterpetxean, eta 3. eta 4. DBH-koentzako, berriz, uztailearen 6tik 17ra bitarte Ozaetatik Zarautzera joango den Kosta ala Kosta. Udaleku guztietan "balio hezitzaileak, euskara eta parte hartzea" izango dute oinarri.

FotoNotizia



Bi zauritu eguazteneko istripuan

43 eta 40 urteko emakume bi zauritu ziren eguazten goizean Maltzagara bidean bi autok izan zuten istripuan. Bata soraluzetarra da. Ibilgailu hondatuen artetik atera ezinik geratu ziren biak, eta suhiltzaile-talde batek atera behar izan zituen. Biek ingresatuta jarraitzen dute Donostiako ospitalean, zauri larriekin baina arriskutik kanpo.

Martxoa hilabete beltza gertatu da herrian. Martxoaren 18an Zeletatik San Andreserako bidean auto batek eta kamioi batek elkar jo zuten, eta egun batzuk geroago, martxoaren 21ean, Gabolats kaleko 8. atariko etxebizitza bat kiskali zuen suak. Zorionez, bi gertakariotan ez zen zauritu larririk izan.

Unai Larreategi, E.H. Bilduren alkategaia

Otsailaren 28an hauteskundeetako programa eztabaidatzeko batzarra egin zuten EH Bilduko zinegotziak eta jarraitzaileak eta bertan jakinarazi zuten Unai Larreategi izango zela alkategaia. "Duela lau urte zehaztutako programaren ardatz gehienak aurrekusi bezala edo moldatuta" bete direla adierazi zuten eta "udalaren zorra kontrolatuz, azken boladan inbertsioak egiteko aukera" berreskuratu dela azpimarratu zuten. Alkarrekin prozesuarekin egindako ibilbidea ere nabarmendu nahi izan dute: "udala kudeatzeko eredu berritzailea ezarri dugu, herritarrak protagonista bilakatu". Maiatzerako aurkeztuko duten programaren ardatza "herritarrak" izango direla aurreratu dute.



Egongela eta terraza berria egoitzan

Egoitzak dituen beharrei erantzuteko helburuarekin, lehenengo solairuko egongela handitu eta gainean terraza egingo dute. Jon Barandiaran egoitzako zuzendariak azaldu digunez, lanon helburua da: "egoiliarren bizi-kalitatea hobetzea". Ekainerako espazio berriak erabilgarri izatea aurrekusi dute.



*baso garbiketak
eta entresakak*
zortzi laguneko taldea
zure zerbitzura

SUMA
basolanak
mug. 635 71 34 08



Joste-eguna apirilaren 25ean

Soraluzeko Gure esku dagok Joste-eguna antolatu du apirilaren 25erako. Egun horretan herritarrak kalean jostun-lanetan jarriko dituzte "erabakitze-eko eskubidearen aldeko herritar mugimenduaren zabaltasunaren neurria adierazteko". Ekainaren 21ean euskal hiriburuetako estadioetan erabakitze-eko eskubidearen alde ekitaldi jendetsua egingo dute, eta aurretik motorrak berotu eta 500 herritarren konpromisoa lortu nahi dute. Horretarako, 26 "tutore" izendatu dituzte eta bakoitzak 20 lagun batu beharko ditu bere inguruan edota lagunartean.



Ordu aldaketa domekan

Udako ordutegia indarrean sartuko da domekan, goizaldeko ordubietan hirurak izango dira.



Elikagai-bankurako lokal bila

Elikagai-bankua martxan jarri ahal izateko Udala eta Alkarrekin 50 m²ko lokal baten bila ari dira, lokala borondatez lagako duen norbaiten bila. Lokalean behar duten pertsonen elikagaiak helaraziko zaizkie eta herritarrei, dendariei eta boluntarioei proiektuan parte hartu ahal izateko aukera eman nahi zaie. Prestutasuna duenak apirilaren 30a baino lehen eman dezake izena udaletxean.

Sabin Mendizabalek martitzenean deklaratu du

Donapaleuko (Nafarroa Beherea) ospitale atarian aitarekin batera zegoela atxilotu zuten Sabin, astelehenean. Geroztik, Baionako komisaldegian dago eta datorren martitzenean Paueko auzitegiara eramango dute, deklaratzera. Sabinekin 2009an ihes egin zuen kaleborrokako ekintza batean parte hartu izana leporatu eta Auzitegi Nazionalak lau urte eta erdiko espetxe-zigorra ezarri zionean. Auzitegiak igorritako euro-aginduarengatik atxilotu du orain Frantziako polizia.

Gazte asanbladak, Sortuk eta bere lagunek Sabinen inguruan medioetan zabaldu diren "intoxikazio eta gezurrak" salatu dituzte, egozten dioten militantzia gezurtatuz. Zapatu iluntzerako (19:00) manifestazioa eta martitzenerako batzar-informatiboa deitu dituzte.

Gotzon Elizburu Auzitegi Nazionalera Maiatzaren 28an eta 29an epaituko dute Gotzon Elizburu Auzitegi Nazionalean,



Sabin Mendizabal.

beste zortzi lagunekin batera. Fiskaltzak eta AVTK bi urte arteko kartzela-zigorrek eskatu dituzte 2013ko Gazte Danbada jaialdiko hitzaldian Lopez Peña "preso politiko" izendatu eta "jo ta ke" esatea "terrorismoari gorazarre egitea" dela egotzita. "Gure berbak nahierara interpretatzen dituzte. Guzti horrek ez dauka zentzurik, epaiketa politiko hutsa da. Guk egin genuena espetxe politika salatzea izan zen", adierazi du Gotzonekin.

20 urteren ostean kaleratu dute Lurdes Txurruka

Joan zen barixakuan Auzitegi Nazionalak Lurdes aske uzteko agindua eman zuen eta aginduak ezustean harrapatu zuen Lurdes bera ere. Irailaren 2an atara behar zuen Txurrukak kartzelatik, baina dirudienez, "zigorraren zenbatekoa egin diote eta konturatu dira kalean behar zuela". Zapatu goizaldean heldu zen herrira Lurdes, eta muxu eta besarkada artean hartu zuten lagun eta senideek. Jasotako harrera eskertu eta "barruan gelditu diren gainerako presoak" izan zituen gogoan Lurdesek egin zituen berba laburretan. Lurdesek 20 urte eta bost hilabete egin ditu espetxean.



Lurdes, zubian egindako harreran.

TABERNATOUR ZIRKUITOA



APIRILEKO SARIA

- 2 perts. udaberri erromantikoa Lekeitioko Villa Itsaso hotelean (gaua + afari berezia).
- Tablet bat
- 50€ko bonoa txurritxun
- 50€ko bonoa losu bitxidendan



MARTXOKO SARITUA: Jose Angel Romero

CARLOS DE COS AZCONA

Argazkilariaren begirada

“Argazkilaritza munduari begiratzeko modu bat da”

Nondik datorkizu argazkilaritzarako afizioa?

Ez dakit argazkilaritzarako afizioa den... Beti gustatu izan zait behatzea. Nik lehenago pintatu egiten nuen, akuarela, hogeit bat urterekin. Oso gauza arraroak pintatzen nituen... Begiratzeko beste modu bat zen. Esaterako, asko gustatzen zitzaizkidan kontra argiak-eta. Azkenean, badago zeozer barruan, hari baten modukoa, lantzen zoazena.

Zer ematen dizu argazkia ateratzek?

Ateratzen dudun argazki bakoitzarekin sentitzen dut satisfakzioa. Beharbada, beste jende askok ez du horrelakorik sentituko baina nik bai. Eta gero, gainera, norbaitek aitortzen badizu argazkia ona dela... Orduan, ya, satisfakzioa sekulakoa da. Argazkiak transmititu egiten du denbora guztian, eta bakoitzak bere modura interpretatzen du. Historia bat kontatzen du, instante batean gertatzen dena. Bideoa pasatzen da baina ez da gelditzen. Ni bideoak ez nau asetzen.

“Argazkia ez dago kamaran, buruan dago”

Zein iturritatik ikasi duzu?

Autodidakta izan naiz erabat. Egin dut photshopeko ikastaroren bat baina, batez ere, eginaz ikasi dut. Denborarekin begia fintzen joaten da eta burua horretara egiten. Hori bai, gogoia izan behar da gauza berriak fotografiazteko, originaltasuna bilatzeko ikuspegian, ordenagailuaren aurrean jarri eta argazkiak aukeratzeko. Gustatu egin behar zaizu. Neri teknika baino gehiago argazkia inte-



Etxeo paretean ditu saritutako hainbat argazki.

resatzen zait. Argazkia ez dago kamaran, argazkia buruan dago.

Lehiaketak ere gustatzen zaizkizu.

Bai. Badago jendea lehiaketetan parte hartzen ez duena eta argazkiak ateratzearekin nahikoa duena. Neri lehiaketetan arra piztu zitzaidan hasi nintzen. Herrietako rallyak dira argazkilaritzan dagoen gauzarik puruenetako bat. Dena ematen dut lehiaketa bakoitzean. Han ez dago photoshopik, ez artxibotik argazkiak aukeratzetik, ez ezer. Denok baldintza berdinetan gaude. Argazkilaritza librea beste kontu bat da.

Zela hasi zinen lehiaketetan?

2004an erosi nuen nere lehen argazki-kamera. Kamera txiki bat. Lehiaketetan 2008an hasi nintzen. Herriko rallya izan zen parte hartu nuen lehenengo lehiaketa, baina ez nuen saririk lortu. 2009an lortu nuen bigarren saria eta

harrezkero lehiaketaz lehiaketa ibili naiz eta sari batzuk lortu ditut.

“Argazkiak historia bat kontatzen du eta bakoitzak bere modura interpretatzen du”

Epaila lanetan ere badiharduzu?

Bai. Argizaiolan, Bergara Hiria lehiaketan eta Donostiako Club Vasco de Camping-ek antolatuko duen nazioarteko lehiaketa batean parte hartzeko ere esan didate.

Lehiaketetatik kanpo ere ateratzen dituzu argazkiak?

Bai, noski. Badira gustatzen zaizkidan gauzak; kirolak... edo udazkena heldu bada, igual joango naiz Iratira, edo Urederrera, edo koloreak dauden beste edozein lekutara... Berdin zait egitea paisaiak, erretratuak edo kirolekoak. Nik denari ematen diot.

KLIK BATEAN

Zenbat argazki izango dituzu?

Ez dakit.

Ehun mila edo?

Ehun mila ez dira asko. Gehiago. Milioi erdia edo...

Ta zer egingo duzu horrekin?

Momentuz hazten jarraitu.

Rebelatzen dituzu argazkiak?

Bakarren batzuk etxean ipintzeko. Detailak zuri-beltzean eta horrelako batzuk.

Zein da zure kamararik kuttunena?

Arrainaren begia objetiboa asko erabiltzen dut. Ezizen hori ere ipini izan didate.

Zure argazkietako bat aukeratu behar bazenu?

Argizaiolakoa aukeratu nuke.

Argazkiak kobratzen dituzu?

Segun eta zeini, edo segun eta zela eskatzen didan.

Irudien inguruuko legedia gogor samarra da.

Kontu pixka bat izan behar da, askotan legalitatearen mugan ibiltzen garelako baina nik ez dut inoiz arazorik izan alde horretatik. Egia da argazki batzuekin bi aldiz pentsatzen dudala aurkeztu aurretik. Esaterako, joan zen urteko San Ferminetan udaltzainak txupinazora sartu zirenean, euren porra luzagarri eta guzti ikurrina kentzera, argazki mordo bat ateratu nuen, baina ez nituen aurkeztu aurpegiak azaltzen zirelako.

“Biribiltxo eta Lakuestak kronika historikoa egin zuten argazkitan. Sekulakoa.”

Arazorik izan duzu inoiz argazki bat ateratzearen?

Behin, Gasteizko Bulevarrean eskailera mekanikoetan argazkiak ateratzen ari nintzela, bertako segurtasun-zaindaria etorri zitzaidan esatera han ezin zela argazkirik atera, eta denak ezabatzeke eskatu zidan. Gero, nagusiarekin berba egin zuen eta esan zidan ez zegoela arazorik. Bere aurrean ezabatu nituen argazki denak. Gero etxera itzuli nintzenean berreskuratu nituen guztiak (barreak).

Beste behin, Karakateko igoerara joan nintzen argazkiak ateratzera. Urte hartan juxtu bidea aldatu zuten eta erromara bat zabaldu zuten apropos jendea pasa zedin, eta hantxe jarri nintzen ni. Bat-batean adineko baserritar bat azaldu zen maldizioka, eta nik argazkia atera. Argazki hori finalista gelditu zen Asturiasko mendiko argazki lehiaketaren batean.

Gustuko duzu argazkilariren bat?

Ez nizuke jakingo esaten. Ez naiz besteen argazkiei begira egoten. Beharbada egin beharko nuke, baina ni horrelakotxea naiz eta kitto.

Biribiltxo eta Lakuesta.

Beste garai batzuk ziren. Horien argazkilaritza erabat soziala zen, kronika historiko ederra. Garbi dago hor sekulako aberastasuna dagoela. Sekulakoa da. Gaur egunekoa beste modu bateko argazkilaritza da: kanpora joaten gara, herrian mila kontu daude... Nire motibazioa gehiago da estetiko.

Pentsatu duzu noizbait profesionalki dedikatzea?

Ez. Nik horrela asko gozatzen dut. Sekulako askatasuna dut eta nahi dudana egiten dut. Horri eutsi nahi diot.



Ganbarako bulegoan, Argizaiola eskuetan.

99 SARI

Gaurko egunera arte 99 sari ditu irabaziak. Euskal Herrikoak batzuk eta kanpokoak beste batzuk: Asturias, Valladolid... Baina denetan garrantzitsuenak, Argizaiola saria, Euskal Autonomia Erkidegoko argazkilarien federazioak 2013an eman ziona. Zarauzko duatloiko korrikalariei ateratako argazki batekin lortu zuen.

Ehunera heltzeko puntuan zaude.


Zortetik ere izango da zerbait, baina uste dut beste zerbait ere badagoela. Beharbada, badago jendea argazki hobek ateratzen dituen baina ni nahiko erregularra naiz, tarteka onen bat ateratzen dudan arren.

Zein sarik eman dizu pozik handiena?

Bergara sarira Soraluzeko jaietan ateratako argazki bat aurkeztu nuen, eta lehengo saria lortu nuen. Lehiaketa librea

herrian ateratako argazki batekin irabazteak poz handia eman zidan. Neri horixe gustatzen zait, kalera atera eta argazkiak ateratzea. Ea zer aurkitzen dudan.

URTEA	SARIAK	URTEA	SARIAK
2009	1	2013	19
2010	9	2014	27
2011	11	2015	6
2012	26		



2. Saria La sidra aldiakarian (Asturias).



Abadiñoako San Blas saria.



Finalista San Ferminetako nazioarteko lehiaketan.



1.ngo saria Bergara BN-n eta Kirolgin. 2. saria Valladoliden.



Bergara koloretan.

Maiatzaren 24an udal eta foru hauteskundeak egingo dira eta, udal-gobernu berria aukeratuko da. Azken lau urteotan Bilduk gidatu duen legegintzaldiaren inguruko iritziak jaso nahi izan ditugu.

Zer balorazio egiten duzu legegintzaldiaz?



Daniel de Luis

Ni apolitikoa naiz. Ez dut politikariengan sinesten. Uste dut herriaren alde egin behar luketela gehiago. Kanpotik datorren jendeari eskaintzen zaizkion laguntzekin ez nago ados eta neurriak hartu beharko lirateke. Bestalde, egia da parte hartzea eta kaleko ekimenak ugaritu direla.



Susana Larreategi

Lehenengo arazo berdinekin jarraitzen dugu: aparkaleku falta, norabide bakarra, Ezoziko futbol-zelairako bidean argirik ez... Elurra kentzerako orduan igerri da hobekuntza eta lehen aldiz emakume bat alkate izan dela ere bai. Horiek dira niri eragiten didaten gaiak.



Jurgi Rascon

Gauza asko egin dira: kaleak konpondu, kirol azpiegiturak hobetu... Nik nabarmenduko nuke Ezoziko futbol zelaiaren egin dena. Oso ondo etorri zaio futbol-taldeari eta orain jende asko erabiltzen du. Faltan, hemengo jendearendako laguntza gehiago.



Lorea Elizburu

Gauza asko egin dira. Mugimendua egon da: argiteria berria, peatonalizioa, tabernarien terrazak, kiroldegiko ordutegia, erregetxeko ordutegiko aparkalekuak, autobus zerbitzuak... Norabide aldatzarekin buelta osoa eman beharra da neri gutxien gustatzen zaidana.

Lehiaketa

Galdera

Zenbat lapurreta egin ziren joan zen urtean?

- 14
- 17
- 25

Saria:

Gaztelupen bi lagunentzako jatordua



Aurreko aleko erantzuna

600 ogi egiten dira egunean Mendizabalen

Irabazlea

Ez da irabazlerik izan

Oharra: lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea atera eta hurrengo barixaku eguerdian egiten dugu.

Deitu **943 75 13 04** edo e-posta bidali **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.





Aritz
Laskurain

Denona izan da

Urte asko pasatu dira ikastolako frontoian lehen pelotakadak jo nitsuanetik. 7 urte nitsuala ikastolan pelota txapelketa bat antolatu zan. Anekdota bezela gogoratu nahi dot ez nintzala irabazten hasi. Finalerdixetan galdu eta herriko hirugarrena izan nitzan txapelketa hartan. Baina pelotako harra barruraino sartu jatan eta herriko pelota-eskolan apuntatu nitzan.

Hurrengo urtietan be herriko bigarrena geratzen nitzan beti. Irabazten baino askoz lehenago ikasi neban galtzen, eta hori suerte haundi bat izan zala uste dot. Ikasgai horrek urtez-urte, mailaz-maila zailtasun guztixeri aurre egituko indarra emon dosta, gustatzen jatan horretan aurrera egituko. Noraino eta profesional-mailan gorenian jokatzera. Nere pasioa izan dan esku pelotatik bizitzera.

Kirola ez da betiko eta azken lau urtietan osteopatiako ikasketekin nabil buru-belarri. Laister osteopatia eta oin erreflexologia zentru bat zabalduko dot, bizitzako beste etapa bati hasiera emanez.

Baina pelotari ibilbidia ez da neria bakarrik izan. Lagun on batek sare sozial baten idatzi zeban bezela "danon bizitzako parte bat izan da". Plaentxiar askoren parte. Askoz zarie gure herrira telebistan nahiz egunkarixetan agertzia eskertu dostazuenak. Eta ni horrekin geratzen naiz. Pozak eta negarrak izan dittut, garaipen ahaztezinak eta porrot eta lesio garratzak. Baina herri-tar askoren animo, esker on, kariño eta babesakin geratzen naiz.

Laskurain omentzeko jaialdia apirilaren 25ean

Apirilaren 25ean, zapatuan, omenaldia egingo diote Aritz Laskuraini, lagunarteak, pelota eskolak eta udalak antolatuta. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera pelota partidak jokatuko dira. Lehen norgehiagokan Dario eta Bolinaga, Urbietta eta Aldaperen aurka arituko dira; bigarrean, Titin III – Goñi III bikotea, Atxotegi – Pascualen aurka lehiatuko dira aurrez-aurre. Jakinarazi dutenez, sarrera doakoa izango da eta bi partiden tartean merezitako omenaldi beroa egingo diote orain gutxi erretiroa hartu duen pilotari soraluzetarrari.

Trikipoteoa eta afaria

Jaialdia 20:00etan hasiko den triki-poteoarekin borobilduko dute eta, ostean, Txurrukara joango dira afaltzera. Txartelak Iratxo goxodendan erosi ahal izango dira bihar hasi eta apirilaren 15era bitartean, 33 euroan (umeei 10 euro).



Omenaldian lehiatuko diren pelotarietako batzuk.

Herriko bolariak San Joxepen lehiatuko dira bihar

Udaberria hastearekin batera ekin zioten herriko bolariak Gipuzkoako Hiru txirlo bolo txapelketan lehiatzeari. Azpeitiko Garmendipe bolatokian jokatutako saioan, Iñaki Burunza izan zen herriko bolari onena, 5 txirlo jota. Bere atzetik sailkatu ziren Bittor Nuñez (3 txirlo) eta Jose Luis Larreategi (2 txirlo). Iñaki Ariznabarreta, Juan Cruz Arizaga eta Jose Antonio Nuñez ere lehiatuko dira datozen jardunaldietan. Bihar, Bergarako San Joxepe bolatokian arituko dira, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Soraluzeko saioak apirilaren 25ean eta maiatzaren 28an izango dira, lehena San Andresen eta bigarrena Ezozin.



Herriko bolariak.

Etxabe Harategia
Euskal txabalkia Bildotsa
Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

BOLIA
Taberna

19. Korrika

Korrikak irudi ederrak laga ditu herritik pasatzerakoan. Soraluzen euskahaldunak etorkizun oparoa du bizi-poz horrekin. Aldizkarian ezin izan ditugu argazki denak sartu, baina Plaentxia.eus-en daude ikusgai. Argazkilaria: Fernan Oregi.



Pil-Pilean Euskara Elkarte



Bizikale elkarte



Gaztetxea



Ludoteka eta bertso eskola



Musika eskola eta abesbatza



Institutua



Plaentxiako herri-ikastetxea



Atxolin eta Keixeta Gurasoen Elkarteak



Kukumixo aisialdi-taldea



Itxaropena



Sare



Mendi-taldea



Pelota-taldea




Galtzagorrixak



Sora futbol-taldea



Dantza-taldea



Korrika txikia

Zorion agurrak



Ibai Rodriguez Larrañaga
Martxuan 11n 11 urte!
Zorionak txapeldun, segi hola!
Muxu pila eta besarkada bat,
etxeko danon partez.



Markel Soraluze
Martxuan 14an 9 urte!
Zorionak etxekuen partez.



Oier Gid Benayas
Martxuan 23an 5 urte!
Zorionak txapeldun, muxu
erraldoi bat etxekuen
partez.



Nora Larreategi
Otsailan 21ian 5 urte!
Zorionak maitxia eta patxo
haundi bat etxeko guztien
partez.



Iraultza Ostolaza Lakuesta
Zorionak zaren bezelakua izatiagaitik,
emoten doskuzunagaitik, patxuak
bihotzez. Sugar eta etxekuen partetik!



Pilar, Rosario, Jesusa, M^aCruz,
Margarita, M^a Axun, Rosario,
Pakita Maria eta Maritzu
87 urte betetzen ditzuzue aurten!
Zorionak etxekuen partez!

Taiotakoak eta hildakoak



Ainara Gonzalez Armengol



Jose Ramon Ondarra Gabilondo





Iturria: Nora Basauri.

Txistulariak belaunaldiz-belaunaldi

Tradizio luzea duen instrumentua da txistua, eta txistulariak ere ugari izan dira gurean. Lehen erretratua 1979. urte inguruan aterata dago, herriko txistulariek Kontzejupean eskainitako kontzertu batean. Sasoi hartan, ohikoa zen, urtean pare bat alditan Kontzejupean emanaldiak eskaintzea.

Argazkian agertzen direnak honako hauek dira (ezkerretik eskumara): Jose Angel Basauri Lete, Juan Jose Arrieta Uria, Javi Perez Gartzia, Javier Gallastegi Idigoras, Agustin Gabilondo Eguren eta Jesus Orbea Gallastegi.

Gazteenen pasakaillia

1982ko apirila zen argazki hau jaso zenean. Txistulari gazteenen pasakaillia hilean behin, igande batean, izaten zen, eta egun seinalatuak zirenean ere aritzen ziren kalerik-kale txistua jotzen.

Argazkian agertzen direnetako batzuk: Ane Ansola, Iñaki Mendizabal, Igone Mendizabal, Arantxi Peñalba, Veronica Galarraga, Nora Basauri eta Alberto Gallastegi.



LUIS CASARES PRADO
1996ko MARTXOAK 24
18. URTEURRENA

*"Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin
oroimenean izango zara zu beti gurekin."*

Etxekoak

MENDIZABAL
okindegia

Egurrezko labean
egindako ogia

Kalebarran, 10
Tel. 943 75 20 91

Balategiata, 6
Tel. 943 75 13 99

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. esk.
Etelena: 943 75 17 52 Fax: 943 75 01 82

20590 Sorraluze
GIPUZKOA

EMAN AURPEGIA

arrazakeriaren kontra

NAROA AGIRRE | Atletico San Sebastianeko pertika jauzilaria

#emaurpegia #arrazakeriarenkontra



Deskontuak

Bizikale elkarteko komertzioek deskontuak eta eskaintza bereziak eskainiko dituzte hilero. Eskaintza baliagarria **martxoaren 28tik apirilaren 12ra** arte.

ARMENDI JATETXEA

Asteburuko menua

16€

Lehen
20€

Deskontua
%20



Izena: _____

Tel: _____

IRATXO GOXODENDA

Erlojuak eta bitxiak

(erlojua)

15€

Lehen
25€

Deskontua
%40



Izena: _____

Tel: _____

MAPFRE ASEGURUAK

**Istripu aseguruak: - Heriotza istripua 40.000 €
- Ezintasun iraunkorra 40.000€**

40€

Lehen
55€

Deskontua
%27



Izena: _____

Tel: _____

MARIMAR HARATEGIA

Oilaskoa, arraultza dozena, 700gr okela pikatua eta lepoko haragia kilo erdi

15€

Lehen
20€

Deskontua
%25



Izena: _____

Tel: _____

Zozketa

60 euroko bono bat zozketatuko da hilero. Parte hartzeko, eskaintzaren bat kontsumitu behar da eta norbere datuekin betetako fitxa entregatu.

Martxoako zozketaren irabazlea: Lurdes Ormaetxea

NIK,
HERRIAN

